

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

2197

IRAGARKIA, 2024ko apirilaren 26koa, Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkariera, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baitira «El Haya 1 Parke Eolikoa eta El Haya 2 Parke Eolikoa eta ebakuazio-azpiegitura» izeneko proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak, Balmasedako (Bizkaia) udal-mugartean.

2022ko azaroaren 15ean, lehia-eskaerei buruzko ebazpena eman zen. Horren bidez, Side Recovery Systems, S.L.U. enpresak El Haya 1 eta El Haya 2 parke eolikoak eta horien ebakuazio-azpiegitura ezartzeko aurkeztutako aurreproiektua hautatu zen, aurreproiektu egoki gisa.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, parke eoliko bidez, energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin bat etorritik, jendaurrean jartzen dira El Haya 1 Parke Eolikoa, El Haya 2 Parke Eolikoa eta ebakuazio-azpiegiturari dagozkien oinarrizko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Espedientea: 48-GE-Y-2023-00023 / 48-GE-Y-2023-00024.

– «El Haya 1 Parke Eolikoa eta El Haya 2 Parke Eolikoa eta ebakuazio-azpiegitura» proiektua, honetan datzana:

- El Haya 1 Parke Eolikoa, 4,35 MW-ko 2 aerosorgailuz osotua eta El Haya 2 Parke Eolikoa, 2,95 MW-ko beste 2 aerosorgailuz osotua, hau da, guztira 14,6 MW-ko potentzia instalatua. Parke eolikoak eta ebakuazio-azpiegitura Balmasedako (Bizkaia) udal-mugartean daude.
- Honako hauek osatzen duten ebakuazio-azpiegitura: parkearen ebakuazio partikularreko 30 kV-ko zirkuitu bikoitzeko aireko eta lurpeko linea, sekzionamendu-zentroa eta lehendik dagoen sarearekin konektatzeko 30 kV-ko lurpeko linea berria.

– Helburua: energia elektrikoa sortzea lurpeko teknologia berriztagarri eolikoaren bidez.

– Eskatzailea: Side Recovery Systems, S.L.U.

– Eskaeraren xedea: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

– Kokalekua: Balmasedako udalerrria (Bizkaia).

– Aurrekontua, guztira: 15.004.077,02 euro.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena ematea Bizkaiko Industria Administrazioari Lurralde Ordezkaritzaren eskumena da, eta jendaurrean jarri behar da, ingurumen-inpaktuaren azterlanaren jendaurreko informazioarekin batera, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikuluan arabera.

Hori guztia argitara ematen da interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa aztertu ahal izan dezaten sail honek Bizkaian duen lurralde-ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao) edo url honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Ordezkaritza honetan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira idatzizko euskarri fisikoan (bi kopia) edo EAeko Administrazio Publikoaren erregistro elektronikoko orokorraren bidez (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>) edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako moduan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 30 egun balioduneko epean.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek jendaurrean jartzeko izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Bilbao, 2024ko apirilaren 26a.

Industria Administrazioaren Bizkaiko lurralde-ordezkarria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.